



ILEROKO ALDIZKARI EDERGARIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—: || 11 Urtea || 1929'ko Joñaila || 124 Zenbakia. || :—

Regnavit a ligno Deus



Elizak Lazaro igandetik asi ta ofelaxe kantatzen du: *Jaungoikoak eguñetik artu zuen eregetza*. Gurutzean josi ondoren bereganatu ditu lufeko biotz on guziak.

Kaifa'k eskriba ta farisauekin egin zuen batzafea, artan erabakitzeko zer egin Jesus'ekin eta uste etzuela egi aundi au esan zuen:

«On zaizute gizon bat efi osoagatik iltzea ta efi osoa ez galtzea». (Joan. XI-50). Batzafe ontan gofotoz era-

baki ori, gure maitetasunaz nai zuen egin, Jesus'ek ofela bakafik bereganatu bear genituelako lufeko guziok.

Argatik zion: «Eta ni goratua izaten ba-naiz lufetik, guziak neregana ekañiko ditut.» «Eta au esaten zuan, zer eriotzaz il beafa zan adieraziz» dio Joan doneak bere ebangelioan.»

Lentxago Jesus'ek esanik zeukan:

«Gizase mea (Jesus) argitutzeko garaia ba-dator: egiaz esaten dizuet, garipikoña (alea) lufera erori-ta iltzen ezipada, berak bakafik dirau, baño iltzen ba-litz, emaitza (frutu)asko ekañiko du» (Joan. XII - 23 - 25).

Alaxe gertatu zan; Jesus bizi zan artean, maitale egiazko gutxi izan zuan. Baño il zan bezin agudo asi zan etsai beren biotzak bereganatzen, eta maitale bildurtien biotzak bere maitetasun bizian sustatzen.

Zenturion'ak aitortzen du bertatik egiaz Jaungoikoaren seme zala il dutena ta damuz bere bulafalde joka itzultzen da Jerusalem'era, Jose ta Nikodemo bildurtiak Jesus'en gorputz ila jasotzera dijoazen artean.

Jesus'en etsaiak eztira bukatuko ura ilen artetik piztu añen. Beren go-

fotoak iraungo du lufean. Baño ofek berak agirian jafiko du, Jesus'i añako gofoto beltzik ezpazaio iñori izan gizonen artean, Jesus'i añako maitetasunik ere etzaiola izango iñoizko egunetan.

Kalbario'ko bizi-emaleak milaka bizi-opaie sortuko ditu lufeko baztar guzietan, garai eta bizi-mala guzietan.

Etsaietan izan ditezke Voltaire siñesgabeak bezala oiu egiten dutenak: ¡Zapal dezagun Lotsagafia!

Edo Juliano siñeste-uzlearen amofoarekin beren odola afika botatzen diotenak, aren antzean esanaz: «Garaitu nauk, Galileaña!»

Jesus gurutzean ilak, Apostoluen eran aietaz Luka doneak Apostoluen Egintzatako liburuan esaten diguna egiten dutenak: (Act. V. 41).

«Apostoluak pozez ateratzen ziran bileraren (Juduen Batzar-buruaren) aufetik, Jesukristoren izenagatik lotsapidea eramateko diña izan ziralako.»

Jesús gurutziltzatuaren maitetasunez biotza gafetan galdetzen zuan Paulo Apostolu doneak: (Rom. VIII-34-39).

«Zerk bereziko ote gaitu ba Kristo'ren maitetasunetik? naigabeak, go-seak, bilusitasunak, afixkuak, txarkeriak, edo ezpatak? Etsia nago, ez eriozak, ez bizitzak... ezta beste izakiren batek ere ezin gaituela Jaungoikoren goimaitasunetik, Jesukristo Gure Jaunari diogunetik, gu berezi.»

Ignazio martire edo bizi opaieak itz biziagoz adierazten zuen oraindik Jesukristo'ren ganako bere maitetasun ori:

«Utzi zaidazute—idazten zien berak Efoma'tafai—utzi zaidazute pistien janari izaten, oiek bidez Jaungoikoa iritxi dezakegu-ta. Jaungoikoaren gari naiz eta pistien ortzak eyotuko naute, Jesukristoren ogi garbi arkitu nadin.»

Bere egunetan gertatzen zana adieraziz eta kristauek Jesus'i beren bi-ziak opatzeko zeukaten gogo bizia adieraziz onela dio Tertulianok: «mindu, gafaztu, neke eman zazute... Geitu egiten gera zuek itaitu ala (burua kentzen diguzuen ariora), kristauen odola, kristau befien azia da.»


Eta onela ikusi zan Elizaren lenengo egunetan, bizi mala guzietatik eta adin eta buruzpide edozeñetakoetatik ba-ziran bizitzaren opalari. Aundizki aberatsetatik ziran Flabio Kelemente, Apolonio ta Kromatio; jakintsuak ziran Justino, Ireneo, Zipriano; efitar xeak Teodoto ta Sebero; gudari edo soldadu, agintarrietatik Bitor, Sebastiano ta Mauritio, guda mutil befiz Se-baste'ko befogeiak; andre ezkonduak Perpetua, Felizitas, Agata; sokalar-teko befiz Blandina ta Potamiana; zartuak edo agureak befiz, Polikarpo ta Simeon; neskatzak, Apolonia, Zezilia, Katalina; aufak, nexka ta mutil-txoak Kiriko, Tarsizio, Eulalia ta Agnes.

Auek guziak Jesus'en Apostoluen ondoren beren bizia eskeñi zioten gurutzetik lufaz jabetu nai zuenari. Ta gaurko egunetaraño aien antzean bi-zia eskeintzen diote Jesusi gure Efege gurutzetuaren kaltetan etsairik ja-sotzen dan aldioro.


Gaur bertan Mejikon beren bizia eman dutenak ikusirik esan dezakegu Zi-priano doneak bere egunetan ziona: «Il naizutenai, etzitzaien iltzea ematen».

Gure azkeneko bizi-opaieak dijoaz esanez: ¡GoraKristo Efegea!

Kalparegi.



«Artu ta jan zazue: au da nere gorputza.»



¡UDALEN BELTZA!

Txorikumeak jaioak dira
basoetan
ta epel daude ama samuñen
egopean,
a! baña txori ama-umien
Egilea
odoltsu lertzen mendi gañeko
gurutzean!...

Zuaitz aundiak jantzi beñiaz
edertuak
agertzen dira lili ta ofiz
ornituak
Ita Egilea biloizik burniz
zulatua
odol-itufiz gurutzepea
gorituaz!...

Lore guziak zabaldu dira
belardian,
bildotx otzanak jaio ere bai
lorartian
Ibaña Jabea arantz zofotzez
txit josia.
Biotz deun ura beazun tantoz
igurtzia!...

Oyanetako itufietan
arkumeak
edaten daude artzai ta artalde
pagopean;
Ita Artzai Nausia ito zorian
gurutzean
¡«Sitio»! deika, zurbil, Golgota
galufean!...

Udabefia...; eguzki printzak
distitsuak
agertzen dira ortziko odeiak
garbituaz
Ita Buruzaia entenga lodiz
ufatua
iluñen dala... begi lausotu
odoltsuaz!...

Belar beñiak tarteak liliz
pitxiturik
azaldu dira Mendi gain artan
guri guri
Ibaña Jainko odol ixtil aundian
gaur igeri
dabiltz guziak...! iau bai degula
negargafi!...

Jauna'k eindako inguma txuri
 pozgafiak
 jostatzen dabiltz orlegi dagon
 belardian
 ita Jaunak zurbil... ubel... negartsu
 Arpegia...;
 itauxe bai dala udalen beltz ta
 mingafia...!!

iUdalen beltza..., ziñetan beltza,
 Egileak
 azken asnasa oraintxe eman du
 gurutzean.
 Ama-mindua Seme odola
 guruzpean
 tantoka artu du zaurietatik
 erortzean!...

iSeme kutunak ixuri duan
 odol putzuz
 Biotz puska bat erortzen dala
 ikusi du
 ita au ikustean Berea ezin
 eduki du
 ta agitz mindua gurutz oñean...
 luña jo du...!!

Inguma, txori, lili, pitxiak
 ezin poztu
 Egile Bera gurutz-gañoan
 il ba'zaigu.
 Ark udalena eder ta polit
 egin digu
 itaña dolofok Bera erailtzez
 belztu degu...!!

iGureganako naitasun bizi
 ta sutsua
 agertzen il da, ¡«Sitio»! deika
 il orduan!
 ta itzok esanaz ubel geldi da
 iloztua
 gurutzepeko Ama'ri beira
 makurtua!...

Udalenaren berezko poza
 itundu da
 bere aldiko samurtasunak
 gogortuaz.
 Udalen beltza..., ziñetan beltza
 daukagu ba
 ta jolas orde... ¡jotoi dagigun
 damutuak!!...

Olerkariak udabefian
 negargarizko mintzoa?...
 itaro onek nonbait arantza euki
 samurtasunen kolkoan!!

Zubigar.

Pasai Antxo



Pedro Mari amerikanoa

Azkena esan genuenaren ondorengo bost-sei egunean Pedro Mari etzan azaldu. Eta Joxe Anton'ek esan zidanaz, onek uste zuan Pedro Mari berea zala.

Larunbata aratsaldean Joxe Anton eta ni gaztandia bera gentozen eta topo egin gendun gure Pedro Mari.

Joxe Anton'ek bertatik alai eta gozatsu ekin zion esanez:

—Zer degu, D. Pedro Mari?

—Asaŕe nago zurekin, Joxe Anton.

—Zuk esango dezu zergatik.

—Aurêko eguneko kontuekin iya zorarazi ninduzulako. Jaungoikoa ta inpernua ba-dela ta zer bildurâ sartu zenidan. ¡Ni txoroe!

—Eta çzer, eztela alakorik ezagutu aldezu era bat?

—Ez baño, naiz gauza oiek izan, zer esan nai du orek? Erlijio guzietan siñisten dute badela Jaungoikoa ta askotan inpernua ba-dela ere bai. Eta nik erlijio oietako batean bizi nai badet, zer zaio iñori?

—Baño ez aldakizu zuk aukeratu zenezaken erlijio oietako jainkoakin etzerala zerura joango ta siñisten duten edo eztuten betiko su-lezera beara zerara, diozuna egingo bazenu?

—Orixe bai eztizuela siñisten, aurêko eguneko otso kontuak bezin eraz.

—Ondo egingo dezu. Baño, ona gero, gezurik ezin esan duenak, au da, Jesukristo Gure Jaunak esan duena: «Norbaitek landaŕean bere eskua jari ondorean, atzera begira jartzen ba-da, (alakoa) ezta zeruko eŕeinorako egokia.»

—Ta orekin zer esan nai dezu?

—Jesukristo berak esan nai zuena, nai dizut esan: Baldin Aren legeari eskua eman ondorean, iñor atzera itzultzen ba-da, eztela zeruan sartuko.

—Baño nork beartzen nau ni, Jesukristok esana siñistea?

—ÇNork beartzen? Jesukristo berak beartzen zaitu. Ez al dakizu, ba apostoluak lur osoa baŕena joateko ta Berak esana eŕi guziei erakusteko agintzean çzer esan zien?

—Esazu agudo, esan bear ba-dezu.

—Auxe esan zien ba: Zuen erakutsi ori siñisten duena zeruratuko da: baño siñisten eztuena suan ondatua izango da.

—ÇZer esan nai du orek? Beste erlijiotan siñisten dutena siñetsirik, eztitekela zerura joan?

—Aurêna esan nai duena da, Jesukristok sortu zuen Elizak erakutsia siñisten eztuena, eztela zeruan sartuko; ta urêna, beste erlijiotako siñiskeriak, ez-tirala naikoa iñor zeruratzeko; azkenean, Jesukristok erakutsia ta Elizak adierazia siñisten duena bakaŕik, dijoala zerura.

—¡E...! Ori txorakeria...! Jaungoikoari bost ba-zaio nik siñisten ba-dut edo ezpadut Jesukristoren eta Elizaren esana!

—¡Pedro Mari! Barkatu, baño oreŕlako astakeririk iñoren aurêan etzazula iñoiz esan.

—ÇAstakeria al da ori?

—Begira gizona. Ikusi zun Jaungoikoak, gizona gezurak burua nasirik, bere siñiskeri gezurfezkoakin galtzera zijoala. Orduan bere Seme maitea, Bere Jakinduria bialtzen digu, gizonai egia erakustera. Onek esaten digu Bere Aitari

entzuna ta Berak ere zekiena. Ta gizonak ezpadiogu siñetsi nai, etzaiola Jaungoikoari axolarik izango?

—Baliteke, baño nik eztut uste.

—Aizu, emagun zuk bizitzekoa ba-dezula ta pozik zaudela. Artean zure

adiskide dela egiten duen batek, gezur sarturik, dituzunak eta etorkizuna kentzea zeamazkila, zure aita ikusten du.

—Bai, ta?

—Aitak bialtzen dizu zure anai zafena ta bere seme maiteena esatea: «Ire adiskide egiten duen ori, ez siñistugero. Dukan guzia galtzea erama.» Ea esazu; gaztigu edo mandatu ori bialdu dizun aitari, axolarik bai al zaio siñesten ba-diozuedo ez?

—Bai baño, entzungo ez banielo ere, nere aitak zer galduko luke?

—Seme batek eta aren ondasun eta zorionak ez al due deus balio aita baltentzat? ¡A zer goraldia ematen dio-



«Ni naiz artzai ona»

zun zure aita zanari ta zure buruari esan dituzun itzakin! Zure aitak ez luke ezer galduko ta mingafirik izango zu galdu afen e...?

—Beriz ere zorarazten nauk eta utzi nazak pakean.

—Pozik utziko zaitut pakean, baño nik gaur esanak ez aztu. Agur.

Legateko Artzaia.

!ALLELUIA!

(O filii et filiae)

ELDUAYEN A.

Allegretto

Chorus I Poztu-zai-tez jo kristaua!

Chorus II I - ru e-ma - ku-me di-ra

Goi-ko Efe - ge ain-tza - - tsu - a Gaur i - ĩe - ta - - tik piz - tu da

Jo - an Je - - sus - - en o - - bi - ra A - ren gor-pu - tza i-gorzte - ra

Gaur i - ĩe - ta - tik piz - tu da *Guztiak* I Aingeru zuriz jantzi-ak


A-ren gor-pu-tza igorzte-ra A-lle-lu-ia II Ikaslen erdi-an Jauna

E - san di - e ema - ku - me - ai

Je - sus Jau - na piz - tu da - la

A - ger - tu zan zi - os - te - - la

Pa - ke - a zue - e - kin de - la

Je - sus Jau - na piz - tu da - la *Guztiak*

Pa - ke - a zu - e - kin de - la

A - - lle - - lu - - ia.



Asierati'k lenengo *Alleluia*'raño, ondorengo berso auekin:

I Pazko jai pozkor oetan
Entzun bitez poz oyuak:
Goretsi dezagun Jauna.

II Jaunari zor diozkagun
Esker apal gogotsuak
Itzuli ditzayozkagun.
Alleluia





¡Euskaleri maitea!

Miñ aundi bat zabaltzen ari da Euskalefi maitean, lotsa aundia ematen duan miña; naigabe aundia ematen dit, ez nizueke aldizkingi batean guzoi agertu bear, Euskalefia asko maite detalako, eta neretzat Euskalefiko gauzak parerik ez dutelako mundu guzian, ezta ere eguzkiaren azpian.

Baño egia da. ¿Zein da miñ ori? ordikeria, mozkorkeria.

Euskalduna ordikoia da, edalaria, edari zalea. *Emakumea* ere bai jori lotsa! batez ere basefitakoa, *txuriarena*, pañafarena; jez ukatu! Lotsagaria da ikustea, basefi edefetako etxekoandreak efiko dendaetan igandetan edo beste egunetan egiten dituzten mandatuaz gañera, nola artzen duten ontzi bat «pañara» etxera eramateko «mantalpean» edo azpiko gonaren sakelan.

Euskalduna edalaria dala? Begira zenbat izen ematen dizkion edari txuriari: *Pañara*, *usuela*, *bixigari*, *lanña txuri*, *mutur oker*, *magalpeko*, *añola*, *urbizi*, *garatx*, *goizeko*, *pixkorgari*.

¡Ura bakaña! Ala esaten dute eta egin ere bai, askok, edari-zaletu baño len, jura bakaña! ura da gauzarik onena, urak ez du beñere kalterik egiten, nik ez det beñere ardorik edaten, ardoak eta ardozaleak ez dute gauza onik ateratzen.

¡Urakin! Baño, bein ta befiz, bere lagun mozkofakin batuta tabernara joateko oitura artzen du, ikusten ditu zein ederki ta zein pozik edaten duten, ta nola alaitzen diran bere adixkide oiek... ta naigaberik ez emateagatik ta bere lagunak bezela egiteagatik azkenean... ardoa edaten du... baño jurakin! ta ongi iruditzen zaio; ¡zein edefa! jurakin edan liteke pixka bat! ofela ez du kalterik egingo noski!

¡Urik gabe! Baño griña bizi ofek ez ditu mugak ezagutzen,.. asi da... ta laxter berea egingo du... lagunak beti ojuka daude, aiek ere edaten dute... nik ere zergatik ez?

Ta lenbizi bakar-bakarik dagoanean, beste lagun aiek ikusi ez dezaten, ardo pixkat «*urik gabe*» edaten du ta ¡zeiñ goxual! dio; eder zait, gauza ona da gero ardoa, urik gabeko ardoa!

¡Ura bezela! Ta guzia galdu da, lenbizi *ura bakara*, gero *urakin*, gero *urik gabe* ta azkenez, len ardorik edaten etzuanak.. orain *ura bezela* edaten du, gauez ta egunez, etxean ta tabernan, nonnai bakarrik dagoaneanta lotsa galdu ezkerro, baita bere lagunakin dagoanean ere.

Ala dira oitura txarrik. ¡Zein kaltegarriak!

Nolako ondore negargarriak datozen edari, ordikeri edo mozkorkeriatik!

Ettxera eraman bear lukean diru guzia tabernan uzten du; bere osasunari begiratu beafean guzia ainbeste ardoz ondatu egiten du; etxeko ta familiariko pakeari begiratu beafean, beti asafe, beti bufukan, ta askotan bere emaztekin joka dabil ordia edo mozkofa; zein ikasbide negargarria, beren umientzat? nola etxeratu bear dute seme-alabak, beren aita gaberdiraño tabernan josia gelditzen bada; ¡nolako efosario edera ezezatzan duan gizon ofek, mozkortu ondorean etxera dijoan bakoitzean! Oju, zalaparta, blasfemi, asafe biziak, oiek dira bere otoitzak. Zenbat aldiz osasuna galdu, ta beren umientzat ondorengo negargarriak ekartzen dituan ordikeriak, gurasoetatik beren aurretara igarotzen dan gaitza dalako ordikeria. ¡A zein seniparte edera ematen dien guraso ofek beren umiai!

Erotegiak ordiaz edo mozkofaz beterik daude, Euskalerrian errotegi-tan dauden gizonetatik 50 % mozkorkeriaz daude.

Osasuna ondatu, dirua galdu, izena zikindu, itz gaxtoak esan, izketa loiak erabili, joku txarretan bizia galdu, gauez berandu, ordu txarretan ka-lean ibili, beti asafe bizi, dala emaztekin dala seme alabakin, damutasunik ez izan, zala dalako oitura txar ori kentzeko, ta anima betiko galtzeko zori-an jafi, oiek guziak dira edariaren ondorengo kaltegarriak. Bai egia dala euskaldunen esaera zar ura:

Aita semeak tabernan daude,
Ama alabak jokuan,
Atofa zafa ez da faltako
Etxe artako kakoan.

Donostiar Gabriel A.



Ilabete onen amairugaren egunean meza bat emango da «ZERUKO ARGIA' REN» irakurle, zabaltzale ta ongile guztien alde, Antonio Santuaren aldarean.

Mejiko tik

Amabi urteko mutiko baten bizkortasuna fedian...

«Beltzen» atzaparetan

Beti bezela ari dira orain ere jendea il ta il...

Batere afazoirik gabe il zuten lengo egunean Salas'tar Eustakio. «Beltzak» (gubernukoak) orain bertan loturik omen dauzkate bost gizon, katolikoak, Mo-tita aldian beren eskuetan geñan eroritakoak.

Eta oien artian bada amabi urteko gaztetxo bat biziagokoa, eta sutsua eta kementsua ziñez, soldaduak berak diotenez alako elkaraldi batian bost ilik eta iru zauriturik utzi zituenaa...

Ara nola erori zan «beltzen» eskuetan. Berak zeraman zaldiari tiro bat eman zioten eta azpian afapatzen du zaldia erortzean. Oraindik ere andik bere-tik «Beltzen» agintariari berari tiro bat ematera zijoala eta ofetarako eskopeta zuzen zuzen jartzen ari zekiola, balazo bat ematen diote riflearen esku tokian eta puskatzen diote riflea...

Egun ortan il ziran amazpi katoliko, eta bost, emen daudenok, erori ziran etsaien eskuetan... Eta gubernukoek berak aitortu dutenez befogei ta iru gizon ilik, zaurituaz gañera, eta oiek ere asko, izan zituzten.

Orain dala iru bat egun etofi zan efi onetara Gonzalez Flores, Koronela, seietan eun gizonekin eta gaur atera da Zakatekas aldera bere gizon guztiekin, katoliko mutiko kementsua berekin eramaten duela...

Beste bat ere eraman zuten, Kolejio Militafera «botatzeko» asmoan... (Si-nistu oiei!)...

Efitik atera baño len Koronelak galdetzen dio amabi urteko gaztetxoari: «Ta i, (emen birau ikaragari bat) zer abil_ola gurekin buñukan, ergel ori?» Eta mutikoak: «Ergela eta txoraa zu izango zera, gubernuan alde zabiltzanezkero. *Jangoikoagatik bakarik nabil zuekin buñukan!* Eta zuek kendu dizkiguzuen Aita onen itzultzea irixteagatik... Eta ofengatik il bear banau, il neza, ta ez uste izan ikaratzen nauela, eta nereak utziko ditudala beññere. Lenago il!...

Koronelak urkatzeko bezela keñu egiten du eta edera eman ta orduan, ots egiten die soldaduei: «Jari zintzilika mutiko ori!» Eta gaztetxoak: «Txakur bat edo zer naiz bada zintzilikan jariazteko? Ta ezpadezu ni iltzeko biotzik, aska nazazu eta etofi nere eskuetara, ia gizona zeran edo ez ikusteko»...

Orduan Koronelak giltzapean sartu zuen: gero beste lagun batekin loturik eraman zuten. Beste gañerako «Kristorenak» emen gelditu ziran. Laster ilko dituztela beldur gera...

Beste beñi ikaragari batzuek ere eldu zaizkigu andik beretik...

Joan dan Abenduaren amabien Ama Birjiñaren eliza aundira zijoazen befogei eta emeretzi andre eta ogei ta bost gizon besoz-beso lotu eta eraman zituzten berekin, eta giltzape gogofean sartu ere. Eta andik ateratzeko ixun astunak or-daindu bear izan zituzten.

Noiz-nai etxeetan sartzen zaizkigu «poliziako gizonak» eta ez gaituzte pa-kean utzi nai geren otoitzak egiten. Orain dela gutxi Bergasen etxean befogei lagun afapatu zituzten eta bai eta ederki ixundu ere.

Gau berean gizon aberats baten etxean sartu eta beriz ere iya ogei ta amar lagun ixundu dituzte eta gogotik ala ere: beren otoitzak egitera biltzen omen dira, baño ezertxo ere legien kontra uts egin gabe...

Auxen da Mejikon Portes Gil'ek efiari eskiñi dion *askatasuna (libertadia)*.

Beren lanpideetatik ezautuko dituzue nor diran...

Begi-Belta'ek euskeratua.



Tsin-txow 1928'ko Abendua'ren 16'ean

Oyeregi'tar Aita Buenabentura

Ondarabi'n.

Aita maite-maitea: Azkenean guztia jakiten dalako, komentu ofetara bizitzera igaro zerala jakin det. Idaztea agindu nizun ezkerro, Egubefiak etori baño len emandako itza bete nai det, egun oietan bestetan baño lan geiago ta kanpoan egotea eraz izango da-ta: ezte nai lengoan niri gertatutakoa orain ere befiz gertatzea: au da, ustegabeko ibilaldi bategatik ezin idatzi (eskribitu) izatea. Ibilaldi ori nolakoa zan idazki edo karta onetan esango dizut.

Emendik ogeita amar kilometro bezelatsuko bideko lekuan, fedegabekoen erdian bakarrik, ta mendi baten ondoko zuloetan bizi zan kristau zar bat il da. Emen gertatzen dan bezela bere maitetasuna agertzeko semeak lenagotik emandako zur lodiz egindako andan sarturik, bere zulotxoaren ondoan luña eman gabe eduki-ta, ileten kontua zeukaten aideak igande bateko afatsaldeko lauetan luña ematea erabaki zuten ta emendik Meza eman-ondoan ara eltzeko bear izan nuen garaiz atera.

Ara irixtean (eltzean) lau lurpeko zulo inguratzen zituan pareta edo esiaren ondoan, nere zai zeuden beste kristauen artean kristau etziran amar bat ziran dolua bezela atofa edo alkandora zuri batez gefiraño jantziak. Azkeneko auek bizkafa makurtuaz ta kristauak befiz belauniko ta gorputza asko makurtuaz ta itz auen antzekoakin: «Aitari diosala. Goratua izan bedi Jesus!..» niri agur egiñaz ildakoa ordu arte bizi izan zan lurpeko zuloaren bafura sartzeko eskatu zidaten: nik ere gaua antxe egin bearko nuen; txutik negoala eskuakin ikutzen nuen zolua ta zabalez befiz etzan, apaldu nuan eta uñengo goizean Meza emateko ibiliko nuan maia ta oia jartzeko besterik; ain aundi-zabala zan.

Oitura dan bezela tea ta pipa eskeñi zidaten, pipa oso eraz eretzen diran belar batzukin piztua, ta txinatar batek pipari tiraka suari ondo afazi ondoan, pipa niri eskeñi zidan, bere mauka baztefakin, pipak ez niri nazka emateko, igortzi ondoan. (Siñistu zadazu azkeneko aldian egin zuan igortzialdi onekin nazka geiago ematen zidala).

Naiz ta gorputzari lur ematea uñengo egunerako uztea berez gauza egokiena irudi izan, bereala lur eman genion (1). Apaiz-soñekoak jazten ni asi bezin laster, ango gizon ta emakume guztiak kafasika negar egiten bat-batean asi ziran,

(1) Emen umeak ala aundiak izan, bere gorputzari lur emateko ordu jakiña jartzeko siñiskeria daukate. Umeai bere ispirituai ziria sartzeko ordu egokienean lur ematen diote, kristau ez diran gaixoak siñisten dutenez umeen ispiritu oiek bere aideen kontra oso asefeturik egoten dira beste munduan, aña ain goiz iltzen utzi dutelako. Ispiriitu oiek pizti edo

danak alkar artu ba'lute bezela. Otoitz edo efezu egokiak egin nituen ta sendi edo familikoak etziran lau gizon bataiatu gabe anda bere bizkaretan artzera.

Bidean etzan jendea aztu «txin pu txin» au da ea gorputzak pisu gutxi zuan galdetzea. Kristau eztiranak befiz «txun pu txun» au da ea pisua aundi duan galdetzen dute.

Oitura onen afazoia jakin izan nai nuan ta dotriña-erakusleak esan zidan: Ildakoa kristaua eztanean, tximino edo beste ofen antzeko pizti baten itxuran



Tsin-txow'ko Apezgaiak (Kansu)

izan zan zulora ginjuazela; lenago esanatik gure arteko gelak baño txikiagoa dala ikusi dezakezu.

Apaldu bitartean, artarako astia bazegoalako, mendian gorago zegon lurpeko zulo batera igo ta misiolariaren begira egon ziralako bataiatu gabe zegon bost ilabeteko aur bat bataiatu nuan.

Geienetan izaten dan aparria baño ohea eman zidaten, etzuen alegia Asuero Efegearen bazkariaren antz aundirik; bestetan artzen dan barazki edo berdura piska ta gari-iriñezko fideoai ardiki piska bat erantsi zioten: onen ondoan etzan egin nitzen, baño gau geienean ez lorik egiteko: nere zuloaren ondoko zuloetan bizi zan jendea gau beranterano itz eta itz aritu zan ta, emen ain ugari dauden zakurak, kaunka ta zaunka aritu ziran gau geienean. Baño etzan ori okefena, elufa egin zuen ta kristau batzuk ezin izan zuten Mezara etori: gaixoai ederki etoriko zitzaien ba, misiolaria ezpaita bost edo sei ilabetean bein besterik agertzen.


(Jafaitzeko)

Bilaba'tar Tarsizio A. O. M. Cap.

egazti txafen gorputzetara joaten dira il-ondoan. Baño oiei ziria sartzea iritxi ezker, zuaitz edo arbola abartsuetara edo abere ederetara joaten dira (ofegatik ikusten dira zuaitz edo arbola batzuek izki edo letradun paperez apainduak). Pingliang'en sendi edo famili bateko iru lagun il ta bereala astoeme batek iru astakume eder egin zituen. Etxekoak poz-pezik, ildakoen ispiritu edo animak astakume aietan zeudelako ustean.

deabrua anda gañean exeri-ta (jafi-ta) ikusten da ta andari pisu izugaria ematen dio; ofegatik eramateko gizon geiago bear izaten dira, ta batzutan ezineramanizatea ereger-tatu da, Ildakoa kristaua baldin ba da befiz eztu iñoiz ere au egiten, geienez gorputzari laguntzera juandako lagunai urutitik laguntzen die. Au kristau diran askok ta ez dira beste askok ikusi izan dute. Orain beñero kristau etzan befogei ta amar kiloko gaztetxo bat il zan ta amabi gizonen artean ezin mugitu izan zuten.

Auxe esan zidan nere dotriña-erakusleak, gau artan nere gela izan bear zuan ildakoaren bizileku



Eun urtean egin dutena.

Siam'go mixiolari protestanteak jai aundiak egin dituzte joan dan urtean ango efegeta efegiñaren afean; zergatik? Siam'en eun urte bete dituztelako. Urte oyetan ikastetxe edo eskolak iriki dituzte ta beartsuai beren diruarekin lagundu die ta Siamgoak berengana ekari ta irabazteko Bibliak zabaldu besterik ez dute egin. Berak esan dutenez, Siam'go protestante guziak 14,846 dira; eun urtean lan egin da gero, ez dirudi asko diranik.

Txina'ko gauzak.

Txina'ak ez dute nai beste eñien atzean egon, berak diotenez, oraindano bezela; bide berri bat artu nai dute, sorginkeri guziak eta beren gezufezko jainkoak ere alde batera utziaz. Esan da egiten ere asi dira. Chekiang probintziko eñi batean joan dira beren pagoda edo elizara ta ez dute lan asko egin bearik izan; soka luze bat artu, beren jainkoez lepota bota ta ¡tira! lufera buruz bera. Baño jainko nagusiak etzuen jetxi nai, pixu geyegi zuen; ez dio ajolik; aizkora bat artu ta bururik gabe utzi zuten. Beste pagoda batean langileak etzuten nai jainko nagusia ukitu, bildur ematen zuelako. Etoñi zan beren burua, guziaz begiratu zien, besoa luzatu zuen eta tiro bat eman zion buruan jainko gezufezkoari. Orain bai; langileak ekin zioten eta guzia txikitu arte etzuten utzi.

Mejiko'ko katolikoak eta Aita Santua.

Aurten 50 urte egingo ditu Aita Santuak bere lenengo meza eman zuela. Onegatik munduko katoliko guziak beren poz-atsegiña nolabait agertuko diote.

Mejiko'ko katolikoak ez dezakete asko egin, oraindik pakea ematen etzaielako, baño al dutena egingo dute beñepein, Aita Santuari zerbait eskeintzeko. Ala eskatu die ango katolikoak beren gotzai edo obispoak; al duenak limosnatxo bat eta guziak sayatu bear dira batez ere Aita Santuaren izenean gauza on asko egiten; gero ortarako egingo diran papertxo batzuetan eskribituko dira ta Aita Santuari balduko zaizkio. ¡Zein pozik artu bear dituen Aita Santuak lore-txorta eder oyek!

Jesus'en jayotza ta bizitza... sorginkeria.

Ala diote Kanton'go agintariak. Europa'n asko ibili ta asko erakutsi dan pelikula bat Txina'ra eraman dute. Kanton'en pelikula jendeari erakutsi afean, ikusi zuten ortarako daudenak, bear ba zan, zerbait moztutzeko. Ala gertatu zan. Zerbait erabaki beara arkitu zuten. ¿Zer uste dezute? Ara: *Jesus'en jayotza, izafaren agerteta, aurtxo baten piztutzea, lepradunen sendaketa* ta Jesus il za-

nean gertatu ziran beste gauzak. Berak esan dutenez, geŕtaera oyek gezurŕa besterik ez dira; gauza oyek eŕiari gezurŕa erakutsi ta auferatzen ez diote uzten; gauza oyek sorginkeria zabaltzeko bakarik onak dira.

Astakeri oyek esan dituztenak ikastetxe onean ibili omen dira, onelako gauzak ikusteko; nun eta Rusia'n.

Protestanteak beko Amerika'n.

Protestanteak ez daude lo. Urtero diru ugari biltzen badakite, beren liburuak ere gero ta ugariago zabaltzeko. Berak diotenez Txina'n miloi bat Biblia utsean edo debalde zabaldu dituzte. Beren ustez azia ondo ta ugari bota dute ta pozik daude. Orain beko Amerika'n begiak jafi dituzte ta an ere lan ori bera egiteko, dirua eskatzen asi dira beren izpeŕingi edo periodikuetan. 400 urte oyetan, ala diote berak, ilunpean dago beko Amerika, jakin beaŕ duena jakin gabe; bere ordua etofi zayo ordea ta berak argia ematera dijoazkiote, beren liburuak guzien eskuetan ipiniaz.

Itz eder eta bikañak.

The Universe periodikuak dio: «Munduko eŕi katolikoen artean, Kolonbia onenetan jafi ditek. Betik asi ta goraño, guziak katoliko zintzoak dira. Orain urte batzuek, bere gobernuak Aita Santuari eskatu zion Maria Softzez garbiaren eguna egin zezala Kolonbia'rako gorde beaŕ diran jai-egunetakoa. 1913'gaŕen urtean Eukaristi Batzaŕa izan zanean, diputaduen buruak eskatu zuen oroigai (monumento) bat jaso beaŕ zala eta oroigai ortan ipini «Kolonbia'k eskeŕak ematen zizkiola Jaunari, batez ere bere aldareko sakramentuan, oraindaño Kolonbia'ri eman dizkion pake ta zorionagatik». Orduan altxa zan beste diputadu bat, len masoien burua izana, ta esan zuen: «Oso edefki esanak daude itz oyek, bada nik ikasi det Jaungoikoak izan beaŕ duela nai ta nai ez eŕien oñaria (base), eŕi oyek beti auŕera joan nai badute. Oraindaño Jaungoikoaren beaŕik ez degula erakutsi det, baño emendik auŕera naizen guzia izango naiz Jaungoikoaren degun beaŕa erakusteko».

Apaiz-Jaleak.

Judu'tar batek zuzentzen duan izpaŕingi edo periodiko batean auxe argitaratu dute, *Osservatore Romano*'k dionez.

Tren batean bazijoazen bi apaiz, erdi paŕez aditzen ari ziran orain Prantzi'ko gobernuak praile batzuen alde egin nai duan legearen kontra batzuek esaten zituzten gauzak. Zoro oietako batek, nonbait apaizen ixil-egote aŕek berak berotu-ta, auxe esan zien: «Zuek nere ustez apaiz egingo ziñeten beste bizibide bat artzeko gauza izango etziñetelako noski.» Apaiz aietako batek, batere estutu gabe, karteratik bere txartel edo tarjeta atera ta danak entzuteko eran irakuri zuen: *Andres Renau apaiza, Erdiko (zentral) Eskolako ikasle izana, artileriako kapitana*.

Onen ondoan txartel edo tarjeta apaiz-jale zoro aŕi eman zion.

Bigaŕenak beste ofenbeste egin zuen: *Kolonbano anaia, kaputxinoa, lenago Akiles Lefebvre ontzidi edo armadako kapitana*.

Apaiz-jale aien esturasuna aundi semaŕa izango zan noski, ain zuzen jaun auek guda edo geŕa garaian geŕa lekutik iges egindakoak bai ziruditen.